

ONDARROA. Futbol partiduak, berbaldiak eta txapelketak antolatu ditue abendura arte

Lore Bengoetxea |

Ondarroako Aurrera Futbol Taldea ospakizunetan sartuta dago. Abuztuaren 14an 25 urte beteko dira Zaldupe futbol zelai zaharra barritu ebenetik. Hori dala eta, ekitaldi ugari antolatu ditue abendura bitartean.

Urte ona izan da Aurrera FTrentzat. 2000-2001 denporaldia goi-goian amaitu dabe, eta bigarren mailara igotekotan be egon dira. Beste alde batetik, denporaldi barria be gustu eder-raz hasi dabe. Futbol zelaiak 25 urte bete dituala eta, ekitaldi ugari antolatu ditue. Zapatuan izan zan lehenengo ekimena. Athleticon kontrako neurketan irabazi egin eben ondarrutarrak.

1976ko abuztuaren 14an jokatatu zan lehenengo partidua Zaldupe futbol zelai barrituan. Zelaia Aurreraren asmoetako bat zan. Izan be, Zaldupen kirol eta aisialdirako azpiegitura zabala egokitzeko asmoa eukien. Danetara 34.495 metro erosi zituen. Horretarako 22 lur jabe-gaz akordioa lortu beharra egon zan, Aurrera bera euren artean. Udalak zazpi milioi pezeta ordaindu zituan. Herriko administrazioak Bizkaiko Aurrezki Kutxari emon eutsazan, 1965eko maiatzaren 22an lortutako adostasunari jarraituta.

Zaldupe zaharrak makina bat

Aurrera-k Zalduperen 25. urteurrena ospatuko dau

Futbol zelaiak abuztuaren 14an beteko ditu zidarrezko ezteiak

buruhausate eragin eutsen Aurrerako zuzendariei. «Marea igoeran, askotan hondoratu egiten zan. Horren eraginez, sarri bertan behera lagaten ziran partiduak. Batzuetan ondo baino hobeto etorten zan hori», di-
noe ordungo lekukoek.

Ipar baltzetan, Aurrera

Ez zan arazo bakararra. Harmailarik ez egoneran, partiduak tente ikusi behar zituen. «Dana dala, eguraldi eskasak ez zituen zaletuak atzera botaten, eta han etorten ziran euren taldea txalotzera», dinoe zaletuek. «Aurreraren himnoak berak esaten dauen modura, ipar baltzetan: Aurrera», ganeratu dabe.

Zaldupe zaharrean jokatutako azken partiduan Jose Solabarrieta egon zan. Bera zan jokalaria ohi beteroanoa, eta berak egin eban ohorezko sakea.

Zelai barriaren inaugurazioan hainbat ezagun batu ziran. Hantxe egoazan, esate baterako, Luciano Murillo Realeko jokalaria eta Jose Angel Iribar, Athletickekoa.

EGITARAUA

ABUZTUAK 2, EGUENA

19:00etan: Aurrera-Real Union partidua.

ABUZTUAK 4, ZAPATUA

12:00etan: Antiguako Amaren elizan meza izango da Aurreraren alde, eta «aurretik joan diran Aurrerakoen omenez».

ABUZTUAK 11, ZAPATUA

11:00etan: Berbaldia. Gaia: *Oinarrizko futbola*. Ekitaldia kofradiako berbaldi aretoan izango da. Bertan honek hartuko dabe parte: Angel Nogales (Athleticeko oinarrizko futbol taldearen entrenatzailea); Mikel Etxarri (Real Sociadadeko oinarrizko futbol taldeko zuzendaria); Aitor Zinkunegi (Aurrera FTko entrenatzaile fisikoa) eta Mikel Odriozola (Aurrera FTko medikua). Moderatzailea San Sebastianeko entrenatzaile Gorka Etxebarria izango da.

ABUZTUAK 12, DOMEKEA

XXV. Ondarroako Udako txapelketa: Arratsaldeko 18:00etan Mutriku-Athletic B taldeen arteko neurketa antolatu dabe; Arratsaldeko 18:45ean Mutriku eta Aurrera egongo dira aurrez aurre, eta arratsaldeko 19:30ean hasita, Aurrera eta Athletic B

taldeen arteko aurrez aurrekoa ikusi ahal izango da.

20:00etan: Patin eta patinete lehiaketa. Ekitaldia Txosnen Batzordeagaz batera antolatu dau, Andra Mari jaietako ekitaldien barruan.

ABUZTUAK 14, MARTITZENA

10:30ean: Kadeteen II. Txirrindulari Lasterketea.

19:00etan: Aurrera-Real Sociedad. «Erreala lehenengo mailako jokalaria guztiekin etorriko da», argitu dabe CD Aurrerakoek.

ABUZTUAK 16, EGUENA

11:00etan: Euskaraokea, frontoian. Ekitaldia Txosnen Batzordeagaz batera antolatu dau, Ondarroako Andra Mari jaietako egitarauaren barruan.

IRAILAK 15, ZAPATUA

Arrantza lehiaketa: Arrigorri Itsas Alkartearen laguntzeagaz.

URRIA ETA ABENDUA BITARTEAN

I. Mus txapelketa: Azken neurketetara heltzen diranentzat sari handiak gorde dituela aurreratu dabe.

AGENDEA

LEKEITIO

Udako pintura erakusketak:

Abuztuaren 5era arte Kepa Agirrerren beharrak ikusi ahal dira Barandiaran aretoan arratsaldeko 19:00etatik gaueko 22:00ak arte.

ONDARROA

San Inazio jaiak:

Arratsaldeko 16:00etan tute txapelketa jokatuko da, eta 19:00etan erromeria izango da Ikabi taldeagaz. Kalandi Kultur Alkartekoek Likona torretxea apainduko dabe.

Igeri lasterketa: Ondarroako Igeri Taldeak XVI. Itsas Lasterketa antolatu dau Arrigorri hondartzan. Ekitaldia goizeko 10:00etan hasiko dabe.

Dantza ikastaroa: Kresala Kultur Alkartek herri dantzen ikastaroa prestatu dau abuztuaren 1etik 10era, arratsaldeko 20:30etik 22:00etara. Izena Arta Bideko lokalean emon behar da. Ikastaroak 1.000 pezeta balioko ditu.

Mikel Urdangarinen kontzertua: Kantaldia eskainiko dau abuztuaren 4an, 22:30ean, frontoian. Sarrerak 1.000 pezetan jarri ditue saltzen Markinako Iruroken, Berriatuko Zentralean, eta Ondarroako Kabian eta Garoan. Ekitaldia Kresala Kultur Alkartek antolatu dau.

Erakusketak: Antxon Uskola Urruzunok pinturak eta marrazkiak jarri ditu Udala Erakusketa Aretoan, abuztuaren 2ra arte. Gaur eguerdiko 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 18:30etik 21:00etara egongo da zabalik.

24 orduko ibilaldi txandakatuak:

AABek presoen aldeko ekimen hau antolatu dau, bigarren urtez, abuztuaren 11 eta 12rako. Emon izena udaletxean.

LEKEITIO. Jose Aldai lekeitiarraren liburua be bertan ipini dabe saltzen



Liburu eta disko azokeak 16 urte bete ditu

Lekeitioko liburu eta disko azokeak XVI. edizinoa egin dau. Aurten 15 mahai ipini ditue. Euskerazko eta erderazko ekoizpenera hurreratzeko aukerea egongo da plazan, eta baita argitalpen zaharrak eskuratzeko be. Tartean aurten lupiaren arrantzearen ganean Jose Aldai lekeitiarrak egindako liburua be ikusi ahal da. «Urtero emaitza onak eukiten doguz Lekeition, eta oraingoan be bardin izango dala uste dogu, eguraldiak laguntzen badau», dino

Euskadiko Liburu Azoken Alkarteko kide Asier Muniategik. «Ekimen honen bitartez, liburu denak kalera ateraten dira, irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz. Ganera, produktu guztiak %10 merkeago dira», esan dau. Azokea abuztuaren 5era arte egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara goizetan, eta 17:00etatik 21:00etara, arratsaldeetan. Jai egunetan ordu erdi gehiago egongo da irekita. Argazkikoa Asier Muniategi da.

MENDEXA. Drindots eta Etzakit taldeek joko dabe

Zaharren egunagaz hasiko ditue, gaur, aurtengo San Pedro jaiak

L.B. |

Dana prest dago Mendexan sanpedroak hasteko. Zaharren egunak zabalduko dau, gaur, egitaraua. Eguenera bitartean hainbat ekitaldi ikusteko aukerea eukiko dabe mendexarrek.

Eguerdiko 12:00etan esku pelota partiduei ekingo deusiee. Nagusien bazkarirako ordua 14:30ean ipini dabe. Tritikitariek girotuko dabe jan-edana. Arratsaldeko 18:00etan moto-kross lasterketearen exhibizioa hasiko da, eta gaueko 23:30ean kontzertuari emongo jako pasu. Drindots eta Etzakit taldeen emonaldia antolatu dabe gaur gauerako.

Bihar San Pedro eguna ospatzen da Mendexan. Goizeko 11:00etan meza nagusia izango da, Mendexako abesbatzeak lagunduta. Ondoren, Mendexako mahaiganekoa eta aureskua antolatu ditue, eta eguerdiko 13:00etan, ahari topekea eta oi-

larren arteko burrukea. Arratsaldeko 18:00etan Gorriti eta bere animalien xoua agindu dabe. Handik ordu betera herriko sagardoa edateko aukerea egongo da danentzat. Eguneko ekitaldiekin amaitzeko, erromeria atondu dabe gaueko 23:00etarako, Irurok taldeagaz.

San Pedro bigarren

Eguenean amaituko dira jaiak. San Pedro bigarrenean Etorkizuna dantza taldeak saioa eskainiko dau eguerdian. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, junior mailako bizikleta lasterketa hasiko dabe. Mendexako III. sariak Ondarroa, Markina, Berriatua eta Lekeitio zeharkatuko ditu.

Arratsaldeko 18:00etan Mendexako XII. Briska Txapelketari ekingo deusie. Lau sari egongo dira jokoan, 15 milatik 6 mila pezeta artekoak. Bikote bakotzak 900 pezeta ipini beharko ditu izena emoneran. Txapelketa jokatuko bitartean, ume eta gurasoen jolasak antolatu ditue.

Erromeriagaz itxiko ditue jaiak. Laiotz taldea arduratuko da Mendexako San Pedro jaiak agurtzeaz.